

## **Balio proposamena :**

Gizartean arazo bat ikusi dugu, pilulak irentsi ezin dituztenak sufritzen duten arazoa hain zuzen ere. Hau konpontzeko MaNoLo enpresa sortzea erabaki dugu. Honi esker, pilulak irentsi ezin dituztenak, barrita moduan irentsi ahal izango dituzte.

Ekoizle lanetan arituko gara gure enpresan, baina banatzaile lanak ere egingo ditugu. Gure dendan salduko ditugu bai pilulak dituzten barritak, eta baita arruntak ere. Horrez gain, supermerkatu eta denda txikietan ere salduko ditugu; eta bezeroak gehitzen joan ahala web-orria sortu eta bertatik ere saltzeko intentzioa dugu.

Gure lehiakideak, farmaziak eta barritak saltzen dituzten enpresak dira. Guk ordea, bi hauek nahasten baititugu, modu honetan, irentsi ezin dituztenen eta barrita moduan nahiago dutenen erosotasuna nabarmentzeko, eta medikamenturik gabeko barritak ere egiten ditugu. Horrez gain, dendara gerturatu nahi ez dutenek, barrita arrunt, nahiz ibuprofeno edo parasetamolezkoak nahi izango balitu, bezero gehiago lortu ahala, gerora sortuko dugun webgunetik erosi eta etxera eramango dizkiogu. Hala ere, webgunean nahiz dendan erosi, beste zenbait lekuetakoak baina garestiagoak izango direla esan beharra dago. Baina irabazien %15 gaixotasun ezezagunen ikerketetarako erabiliko da.